

Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

AMURRION AIARAKO GAZTE BATEK BART JASANDAKO GORROTO- DELITUA ARBUIATZEKO ETA GAITZESTEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Aiarako Udaleko taldeok gure gaitzespen eta sumindurarik handiena adierazi nahi dugu gura udalerriko gazte batek Amurrión bart jasandako eraso homofoboarengatik. Horrelako ekintzak duintasunaren eta integritate fisiko eta moralaren aurkako eraso larriak dira, eta, ondorioz, Giza Eskubideen urraketa larri eta onartezina dakarte. Sexu-askatasuna, gure gizartean de facto dagoen aniztasunaren adierazlea izateaz gain, funtsezkoa da giza eskubideen arloan aurrera egiteko.


Pertsona baten askatasuna horrela moztea guztiz onartezina da. Horrelako gorroto-delituek ez dute lekurik Aiaran.

Gogorarazi behar dugu beharrezkoa dela gizarteko arlo, erakunde eta herritar guztien aldetik gizartearen homofobiaren aurka batera borrokatzea, guztion erantzukizuna da, ahotsa altxatuz eta indarkeria edo/eta koakzio matxistaren edozein zantzu modu irmoan salatuz, salbuespenik gabe.

Gure gaitzespen irmoena erakutsi nahi dugu, eta baita gure elkartasuna ere erasoja jasan duen gazteari eta bere ingurukoei. Aiarako Udalak bere eskura jartzen ditu bere udal-baliabide guztiak eta sexu-aniztasunaren eta berdintasunaren alde lan egiten jarraituko dugu.

Eta azkenik, herritarrei dei egiten diegu gorroto-delitu horiek gaitzesteko bost minutuko kontzentrazioa egin dezaten Amurrioko plazan, biharko, 2021eko abuztuaren 14ko, 18:00etan.

Aiaran, 2021eko abuztuaren 13an



Aiara Batuz

Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala